Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Ogasun, Finantza
eta Aurrekontu Saila
Departamento de Hacienda,
Finanzas y Presupuestos

**ALDEZ AURREKO KONTSULTA. GAIA: EUROPAKO BATASUNEKO ZENBAIT ZUZENTARAU DIRELA ETA, ZENBAIT ZERGA FORU ARAU ALDATZEKO AURREPROIEKTUA**

Xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuaz, goiburuan aipatutako aurreproiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
c) Arauaren helburuak
d) Izan daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, berriki onartu diren Europako Zuzentarauetara egokitutako arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei haien iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, ekainaren 5era arte, *aurrezkontsultak@araba.eus* helbide elektronikoko postontziaren bidez.

| | |
|---|---|
| **AURREKARIAK** | Europako Batasuneko zenbait zuzentarauren onespena. |

| | |
|---|---|
| **KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK** | Zenbait zerga foru arau eguneratzeko beharra. |
| **ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA** | Zerga araudia egindako aldaketen arabera eguneratu beharra dago. |
| **HELBURUAK** | Europako araudien arabera eguneratzea. |
| **EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)** | Aukerarik egokiena dela uste da. |